Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko ekainean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko ekainean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 2.201 izan da, maiatzean baino 394 gehiago eta joan den urteko ekainean baino 910 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko ekainean 265 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 927 Gipuzkoan eta 1.009 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 45,8 Bizkaiako KAUetan erregistratu dira, % 42,1 Gipuzkoakoetan eta % 12 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 18,8 hazi dira eskaintzak (42 eskaintza gehiago). Bizkaian 275 eskaintza gehiago izan dira (% 37,5eko hazkundea) eta, azkenik, Gipuzkoan 77 eskaintza gehiago (% 9,1eko igoera).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 75 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 39,5eko hazkundea, Bizkaian % 74,3 hazi dira eskaintzak (430 gehiago), eta azkenik, Gipuzkoan % 77,6koa da hazkundea (+405 eskaintza).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Lau lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak, hiru laurden, han zuzen ere. % 20,7 laguntzako teknikarien profilerako erregistratu dira (455 eskaintza); eta, % 17,9 zientzietako teknikarien profilerako (393 eskaintza). Zientzietako teknikari, eta industria profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute;386 eta 364 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 17 eta 16 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota gehienetan hazi dira eskaintzak. Gehien hazi diren eskaintzak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, laguntzako teknikarien profilekoak izan dira (187 eskaintza gehiago, % 69,8ko hazkundea). Beste muturrean, berriz, beherakada nabarmenena lehen sektoreko eskaintzatan gertatu da (% 55,6ko beherakada, 20 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil guztietako eskaintzak hazi dira. Hilabete arteko erlazioan bezala, gehien hazi direnak, balore absolutuetan, laguntzako teknikarien profilekoak izan dira (192 eskaintza gehiago, % 73ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 100eko hazkundea, 8 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 30,5ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 68,5ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,9ak, merkataritzakoa. Kontratu mugagabea eskaini duten eskaintzen portzentaia altua da; 2021etik zetorren joera indartzen ari da 2022an. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 672 izan dira, aurreko hilabetean baino 138 eskaintza gehiago (% 25,8ko igoera). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 249 eskaintza gehiago erregistratu dira: 1.508 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 19,8koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko ekainean 21 izan dira, aurreko hilean baino 7 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 525 gehiago izan dira (% 357,1eko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 32,2 hazi dira; 367 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, azkenik, 18 gehiago erregistratu dira (% 600eko igoera).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko ekainean erregistratutako lan-eskaintzen % 80,3k, 1.767 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 9,8k (215 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 1ekoko pisua dute (22 eskaintza) eta, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten 14 eskaintza egon dira hil honetan (eskaintza guztien % 0,6).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak hazi dira 3-5 urte artekoak izan ezik; horien kasuan 13 gutxiago erregistratu dira (-% 37,1). Gehien hazi direnak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (365 eskaintza gehiago, % 26ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien hazi direnak, % 100eko hazkundea izan baitute (7 eskaintza gehiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez ere, eskaintza guztiak hazi dira 3-5 urteko artekoa salbu; 9 gutxiago erregistratu dira ekainean (% 29ko beherakada). Balio absolutuetan gehien igo direnak, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (775 eskaintza gehiago, % 78,1eko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien hazi direnak (11 eskaintza gehiago, % 366,7ko hazkundea).

Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko ekainean

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 12k zehazten du datu hori (2.201 eskaintzetatik 307). 307 eskaintza horietatik, 271k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 36ak, lanaldi partziala eskaini dute.

Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 89 gehiago izan dira maiatzarekin alderatuz, hau da, % 48,9 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 2 gehiago izan dira; hazkundea erlatiboa % 5,9koa izan da.



Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 100 gehiago izan dira (% 58,5eko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 5 gehiago (% 16,1eko igoera).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 67 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 18 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 59 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 87k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 2.201 eskaintzetatik 287k soilik zehaztu dute.

287 eskaintza horietatik, 125ek LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, unibertsitateko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 80 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (57 eta 25 eskaintza, hurrenez hurren).



Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, mota guztietako ikasketen eskaintzak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (34 eskaintza gehiago, % 37,4ko hazkundea).

2021eko ekainarekin alderatuta ere, eskaintza mota guztiak hazi egin dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira 39 eskaintza gehiago jasota (% 95,1eko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, igoera handiena batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenen multzoan eman da (% 212,5eko igoera, 17 eskaintza gehiago).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena jarduera manufaktura industrien profilekoa da; honen pisua eskaintza guztien % 19,6koa izan da (432 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat merkataritza da, eskaintzen % 13,4ko pisuarekin (295 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, ia eskaintza guztiak hazi dira. Balio absolutuetan, gehien hazi diren eskaintzak, manufaktura industriak izan dira (181 eskaintza gehiago, % 72,1eko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, igoera nabarmena informazio eta komunikazioko jarduerek izan dute (% 79,2ko hazkundea, 38 eskaintza gehiago). Beste muturrean, ostalaritzako jarduerak daude, hauek izan baitira gehien murriztu direnak (82 gutxiago, % 37,4ko beherakada).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi dira lehen sektorekoak izan ezik; hauek berdin mantendu dira (6 eskaintza). Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, administratiboak izan dira (193 eskaintza gehiago, %219,3ko hazkundea); balio erlatiboetan, berriz, gehien hazi direnak finantza eta aseguru jarduerak izan dira (% 533,3ko igoera, 16 eskaintza gehiago).